


Goibe Kofale
1997ko azaroa. 29zk.
ELGETAKO ALDIZKARIA



**"LASTER
BATEAN
ETXEAN"**

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.



Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

Kartak

Saskiak eta saskibaloia

Elgetako Saskibaloitaldeak, lehenik eta behin argi utzi nahi genukeena zera da: eskutitz honekin inolako eztabaidarik sortu nahi ez izatea eta era berean errealitatea isladatzea. Hau argitu ondoren, arira joko dugu.

Nola jokatu saskibaloian saskirik ez badago? Ez da erreza, ez. Hau irakurtzean, norbaitek ahotsa zeruan ipiniko du, berehala, herriari sei saski gutxienez daudela etorriko baitzaio burura.

Bai, sei saski badaude baina zein egoeratan? Polikiroldegi kanpoan dauden biei, duela gutxi arte izen hori ematea gehiegi litzateke. Gaur, "konpondu" ondoren, saskiak okertuta daudela eta tableroak erreferentzizat hartzen diren marrak margotu gabe dituela aipatu beharra dago.

Polikiroldegian beste bi daudela? Ez, irakurle ez. Aspaldidanik bata guztiz hondatuta dago eta bestea ez dago oso egoera onean.

Azkenik Ikastola inguruan dauden saskiak aipatzea geratzen da. Sinestezina bada ere, saski hauek BELARRETAN! daude eta ez zemento edo parket gainean. Ez dakigu zein arrazoigatik dauden belar gainean baina 3. munduaz aritzen diren pelikuletan bakarrik ikusi ditugu antzerako tokiak.

Eskatzen dugun gauza bakarra, gustoko dugun kirola ezinbesteko kondizioak betetzen dituen tokian burutzeko aukera izatea da, besterik gabe.

E. E. Sakibaloitalde

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inzialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



Hego haizea andre haizea?

Azken hllabeteotan ezohiko Aeguraldia izan dugu Euskal Herrian, Uda amaiera beroa izan

da benetan.

Udaknenaren hasera, berriz, uda-udakoa eta azken egun hauetan, hego haize zoroa.

Nahiz eta antzinan ipuin asko sortutakoa izan, hain haize ezaguna denez, bere inguruan jardun ugari sortzen du gaur egun ere. Hego haize honek erromantiko forma dauka.

Euskal Herriko mitologian sarritan aipatzen edo agertzen da hego haizea. Baita herriko kontakizunetan ere, haizeak pertsona forma hartzen du.

Magia eta sorginen akelarreekin ere zerikusia izan duela badakigu. Orgia hauek urtearen sasoi honetan ospatu ohi zituzten, San Martin inguruetan eta hego haize aitzakia eta lekuko zutela.

Gaur egun, sarritan entzuten dira jendearen artean horrelako komentarioak: "Hego haizea: hango mina, hemengo mina ... "edota hego haizea andra haizea".

Dirudienez, gizonak alpertu eta mimosotu egiten dira eta emakumeen behar eta babes gehiagoren premian aurkitzen omen dira, baina hori nola ezin duten onartu ba... lehen aipatu dudana, errezena, andreei bota errua edo kulpa.

Hau zientifikoki frogatzerik ez dagoen arren, sendagile batzuek baduela zerikusirik aitortzen dute. Beraz sasoi hauetan andrak erromantika bihurtzen bagara, eta gure gizonak erabat mimoso sentitzen badira, badakigu zer egin, ezta? Hori berbera... eta gero, hego haizeari kulpa bota .

Mª Elena Eztenaga



Haurtzarorik gabeko umeak

A benduaren 20an Nazioarteko Umeen Eguna ospatu zen. Dena den, ez dut uste Afrikan, Asian, Hego Ameriketara edota gure herrialdeko tokiren batzuetan enteratu zirenik.

Milioika umeak, lau eta hamabost urte bitartekoak, lan egin behar du bizi iraupenak hala behartuta. Estatistiken arabera 200 milioi dira mundu zabalean.



Arazoa nabarmenki larriagotzen da Hegoaldeko herrialdeetan. Asiako biztanleria aktiboaren % 11, 4 eta 15 urte bitarteko umeak dira. Indian adibidez 44 milioi; Afrikan % 17.

Umeek euren eskubideak ere badituzte eta hori izan zen irakatsi ziguten lehenengo gaia Bilboko Magisteritza Eskolan.

Arestian aipatutakoarekin hausnarketa txiki bat egin dezagun. Hona hemen umeen eskubideak:

- 1- Umeak askatasunean hezitzeko aukera izan behar du.
- 2- Umeak jaiotzean izena eta abizenak izateko eskubidea du.
- 3- Umeak elikadura egokia, etxebizitza eta osasunean bizitzeko eskubidea du.
- 4- Umeak arazo fisiko edo psikikoren bat izanez gero, tratamendu egokia izateko eskubidea du.
- 5- Umeak bere gurasoen laguntza eta maitasunarekin bizitzeko eskubidea du.
- 6- Larrialdietan lehen babestu beharrekoan umea izango da.
- 7- Umeak ezin izango du lan egin adin batera heldu arte. Ezin izango zaio baztertu eta esplotatu.
- 8- Umea arrazismoaren kontrako ingurugiro batean hezi behar da.
- 9- Umeak hezkuntza dohain jasoko du adin konkretu batera heldu arte.
- 10- Umea paketsua den ingurugiro batean hezi behar da.
- 11- Umeari ume izaten utzi behar zaio.

Maite Peñalver



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Mª Elena Eztenaga, Maite Peñalver eta Jabier Aranzeta. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS 475/95. **ISSN:** 1135-3538.

INAUGURATUTA GAS BILTEGIA

-Etxeetarako hornidura konexioak aste honetan hasteko dira-

Astlehenean inauguratu zen Pagatzako Industrialdean kokatuta dagoen gas biltegia. Biltegietan pila-tutako gasak hilabeteko iraupena izango dute kontsumoa maximoa denean ere. Agortzean kamioi zisterna batzuen bidez beteko dira gas biltegiak. Kamioiak luze-ra handikoak dira eta oraindik leku horretan ibiltzeko espazioa egokitu beharra dago. Inauguraketan aipatu zenez instalazioak punta puntakoak dira, estatuan lehen aldiz jarri diren erregulazio eta lurrinketarako kit batez horniturik daude. Aste honetan hasiko dira eskatu duten etxebizitzetara hornidura konexioak egiten.

Lanen kostoa 100 milioitakoa izan da, horietatik 72 milioi Repsol-butanok ordaindu ditu. Gainerako 28 milioiak erabiltzaileek ordainduko dituzte. 240 etxebizitzak egina dute gasa etxeratzeko eskaera eta baita 21 enpresak ere, Repsol-butanok eskatutako minimoa hain zuzen.



GABONETAKO PARKEAZ GOZATUKO DUTE ELGETAKO HAURREK

-Peio Añorga ipuin kontalaria izango da Kultur Etxean-

Abendurako ekintza ugari batez ere haur eta gaztetxoentzako. Hilaren 9an Peio Añorga kontu kontaria hurbilduko da kultur etxera, 3 urte eta 2. maila tartekoek bere kontuekin gozatzeko aukera izango dute. Hilaren 13an piano audizioa eskeiniko dute Elgeta eta Eibarko ikasleek. Audizio eskola zaharretan egingo da arratsaldeko 6:30etan.

Hilaren 19an bestalde, ikus-entzunezkoa izango da Gaz-

tetxean 22:00etan. Gaia "Euskal Herriko mitologia; atzo eta gaur".

Kristma eta ipuin lehiaketan parte hartu duten ikasleentzat merienda egongo da abenduaren 20an. Ondoren arratsaldeko 6:00etan txikientzat eta 7:30etan gaztetxoentzat dantzaldia Gaztetxean hauek jarritako musikarekin.

Gabon bezperan Olentzero etorriko da arratsaldeko 6:00ak inguruan herriko neska mutilen gutunak jasotzera. Gabon egunean

goizeko 11:00etan Gabon Kantak abestera irtengo dira eskolako haur eta gurasoak. 18:00etan Jaiotza Bizia udaletzeko arkupean.

Hilaren bukaeran 26, 27 eta 28an Gabonetako parkea zabalduko da lehen aldiz haurrentzat. Parke hau frontoian eta gimnasioan burutuko da. Egun bakoitzeko 100 pezeta ordaindu beharko du haur bakoitzak, 3 egunetako sarre-ragatik 200 pezetako bonoa erosteko aukera ere ipini dute.

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA




**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI



TXIKIZIOAK ESKOLA INGURUNEAN

-Hilabete honetan 30.000 pta ordaindu ditu udaletxeak eta patronatoak azken urtean 102.000 pta. kristaletan-

Txikizio ugari azken hilabetetan eskola zaharren eta patronatoko egoitzetan. Hau gutxi balitz, eskola berrietan sartu denik ere izan da. Udaletxeak, arduradunak, 30.000 pta. behar izan ditu hango leiho eta ate zerrailak konpontzen hilabete honetan. Patronatoko lokalen ardura parrokiak du eta azken urtean 102.000 pta. ordaindu ditu kristaletan bakarrik. Apaizaren esanetan, "oso triste da, umekeriak umekeri dira eta hau bromatik pasatu egiten da".

Ekinza hauek gutxi balira ere eskola zaharretan sartu dira hirutan gutxienez eta AEK-ko taldeak utzi dituen koltxoak zulatu dituzte. Bertan utzitako eskulanak apurtuta daude. Nortzuk direnezagutzen da baina ez dituzte orain artean harrapatu. Jose Luis Aperribai apaizaren ustez, "ez da polizi lanetan hasteko kontua, baina nola-baiteko neurriak hartu beharko dira".

Eskola Berrietan ere arazoak

Hilabete da eskola berrietan gauze sartzten ziren ume taldea nor den jakin da. Asteburutan beheko aldetik eta irakasleen gelatik sartzten ziren barrura. Irakasleak berehala ohartu ziren egoeraz. Gutxienez diruta eta materialetan 70.000 pta. lapurtu dituzte. Errudunak berehala harrapatu dituzte kasu honetan eta guraso eta ikasleak bildu nahi dituzte gaia aztertzeko. Bazar hau udaletxeak konbokatuko du eta zer nolako neurriak hartuko diren erabakiko dute. Barruan "lan" hauetan ihardun dutenak Bergarako eskolan hasi diren umeak dira besteak beste.

Asteburutan topagune aproposa da gazteentzat inguru hori. Baina aspalditik egon dira arazoak, irakasleen esanetan, hurren patio berrietan sua egiten ere aritzen omen dira orain, lehen eskola zaharretan gertatu bezala.

Ipuin lehiaketa

Elgetako eta Angiozar-ko hurrek 36 ipuin aurkeztu dituzte. Datorren hilabetean jakingo ditugu irabazleak zeintzuk izan diren. Dena dela epaimahaiak 5. eta 6. mailakoen ahalegina azpimarratu du, ikasle guztiak aurkeztu baitira lehiaketara. Aipatu behar ere, DBH-ko ikasleen mailako lehiaketa irabazle gabe geratu dela, aurkeztutako lanak ez direlako mailara iritxi. Abenduan gabon jaialdian emango dira aitzera irabazleak eta beraien lanak aldizkarian agertuko dira.

Telefono Gida

Hurrengo alearekin batera, Elgetako telefono gida banatuko dizuegu. Bertan herri-herri guztion telefono zenbakiak aurkituko dituzue. Bestetik aldizkariak herriko enpresa, taberna, denda eta zerbitzuei bere esker ona adierazteko telefono gidan beraien izen eta telefonoak sartzea erabaki du.

Gaztetxeko asanblada orokorra

Bihar hilak 29 asanblada orokor bat dago antolatuta gaztetxean. Gazte Asanbladak dei bat luzatu die gaztetxearekin interesatuta dauden elgetarrei. Asanblada honetan Gaztetxearen gaurko egoera eta etorkizuna aztertuko dira. Zapatua arratsaldeko 16:00etan.

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

tel: 768284

BI ANGIOZARTAR BERRI

Azken hiru urtetan jaiotza berririk ez delarik egon aipatzekoa dugu azaro honetan bi jaiotza gertatzea. Azaroaren 6an Goizaldi Arotzena González jaio zen Garrasteitxo baserrikoa, eta azaroaren 18an Eneritz Arizmendiarieta Elortza. Zorionak gurasooi!

Jaiotze tasaren beherakadan eragin handia izan du ezkonberriek etxebizitarik bertan izateko aukerarik ez izateak, ondorioz ezkondu ahala jendea kanpora joan da bizitzera eta neurri berean biztanleriaren batz besteko edadea igoz. Etxe bizitza berriak egiteko politika martxan jarri ezin izanak zeharo baldintzatu du azken hamar urtetan biztanleriaren jeitsiera eta jaiotze tasarena ere bai. Hilabete honetako berri onak sarriagoak izateko bidea aspalditik dago markatua, baina erakunde publikoak horretaz jabe egiten ez diren bitartean ezer gutxi egin daiteke.

Umeen kopuruak eragin zuzena du eskolaren iraupenean esate baterako. Angiozarkoa da garai bateko "Escuela Unitaria"

delakoetan Deba Bailara osoan gelditzen den bakarra, eta hori zuzenean eskertu behar zaie bertako gurasoei proiektu horrek merezi duela sinistearren. Dударik ez hiru urtetan ikasle berririk ez edukitzeak eragina izango duela, baina iraunaraziko dioten sintoma berri hauek beste arnasa bat emango diote.

Ezkonberriak

Virginia Imaz eta Jose Carmelo Muñoz azaroaren 15ean ezkondu ziren Hondarribiko Gualupen. Virginia eta Albertok urte dexente daramate Angiozarren bizitzen eta batez ere beren lanbidea dela eta dira ezagunak, Oihulari Klown antzerki taldearen sortzaile eta bihotza baidira senar-emazte berriok. Zorionak!!

AZKUNETAKO JAIK

Eguraldi ederrarekin ospatu zuten azkunarrek San Martin eguna. Bertara bildu zirenek mokau goxoa jateko aukera izan zuten trikitalarien musika tartean.

Poliki-poliki badoa idartuz azkenik jai hau ere, azkenengoa izan baita Angiozarko auzoetan berriz jaieguna berreskuratzen. Datorren urterako eguna edo ordutegia aldatu beharra egongo litzateke, horrela jende gehiagok eduki dezan inguratzeko aukera, izan ere zapatu eguerdian nahiko luketen askok ezinagatik joan barik gelditzen dira eta.

JATETXEEN GIDA SALGAI

Debagunek atera duen Deba Garaiko Jatexeen gida las-ter batean izango duzue salgai jatetxeetan bertan eta kalean ipiniko den postuan 500 pezetaren truke. Angiozarko hiru jatetxez gain gure eskualdeko beste ehun jatetxeren ezaugarriak aurkituko dituzue bertan: ordutegiak, janari berezitasunak, telefono, helbide, menuko ezaugarriak, argazkia, eta errezeta bat ere bai. Liburuaren bigarren zatian hiztegitxo bat

ere badator, jatetxeei batez ere lagungarri izango zaiena, horrela karta euskaraz eskaintzeko aukera izan dezaten.

Gida hau "Euskara Kartara" lemapean burutuko den kanpaina baten hasiera da, bere helburua Deba Garaiko jatetxe guztietan karta euskaraz izatea delarik hiru hilabeteko epean.

**Iragarri
zaitez.**

Tel:78.90.85
Faxa: 789043

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak



Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

LEHIAKETA



Bikote mundialagorik ez dago!


Elgetan behintzat oso famatuak dira nahiz eta zuetako batzuek estatutik kanporako bikoteak direla esan. Zelan ez, Fakundo eta Luzio dira. Fakundo Sarasketa soinujolea da eta Luzio Ubera berriz panderojolea. Biak ere jubilatuta daude baina soltura handiz egiten dute musika, musika alaia: trikitia.

Ekaitz Macarrok ere ezagutu ditu biak eta bi lerrotan zeintzuk diren esatearren birentzako afaria ira-

bazi dute.

Zuek ere hurrengo lehiaketan parte hartu nahi duzuela? Oso erraza da kartatxo bat bidaltzea besterik ez duzue. Honezkereoa badakizue nora, beraz ez goaz berriz errepikatzerara. **Goibekokale** Elgeta jartzea nahikoa da herriko postaria berriz lanean hasi da eta.

Oraingoan zer asmatu beharrekoa ere ez da batere zaila. Zer demondre da irudian agertzen den hori? Zertarako balio du tramankulu horrek?




Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA



Zer pentsatzen jatzu ejerzitua profesionala izatia?

Hemen urte sasoiari soldauzkara zein doian erabakitzeke egiten dan zozketia dala ta pentsau dogu jentriak ejerezituan gainian zer pentsatzen daben galdetzia




Ikaslia (20 urte)

Ondo pentsatzen jata, oiñ dagon baiño hobeto egongo zalako. Oiñ dagon moduan ez jata ondo pentsatzen jentia bihartuta egotia sorteo baten tokatzen jakon lekura juatera. Ez litzake ejerzitoik egon bihar, beste gauza batzun artian gastu haundixa dalako.



Etxeko andria (29 urte)

Ondo pentsatzen jata, holan juatia nahi dabena libre dauka, ta juatia nahi ez dabena be bai, gainera langile moduan juan ezkeru diru-sarixa kobrauko leuke. Holan lanpostu bat izango litzake ta ez derrigorrezko gauza bat. Hobeto izango litzake ez balego ejerzitoik baiña ez dagonez beste irtenbiderik...




Bihargiña (37 urte)

Gaizki pentsatzen jata ejerzitua profesionala izatia dirua alperrik gataztzia izango zalako. Gainera ez zan egon biharko ez soldauzkaik ta ez besteik. Ez zan egon biharko ejerzitoik ez hemen ta ez beste iñun, sobran dare danak.



Bihagiña (46 urte)

Ondo pentsatzen jata, holan gatiendako ez zan izango derrigorrezkoa. Ejerzitua eukitzia biharrezkoa baldin bada, ondo pentsatzen jata profesionala izatia hala ta be, hobeto izango litzake ejerzitoik ez balego.



Jubilaua (69 urte)

Uste dot ejerzitorea juan biharko zirala taka-taka ibiltzen dian danak edo bestela iñobez, ez ba-tzundako bai ta beste batzundako ez. Oiñ egiten dittuen sorteuak ez jataz gatastzen, juan biharra dakenek ze kulpa dake ba... Edo danak edo iñobez. Gainera lan moduan izanda, kobratzen, neu be juango nitzake.



Jubilaua (75 urte)

Nere ustez ez litzake egon bihar ez ejerzito profesionalik ez besteik. Ez dot ondo ikusten gatiak bihartuta soldauzkara bialtzia, ta ezta hori ebitatzeko ejerzitua profesionala izatia be.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

♈	Aries: Amodioak ez dabela dirurik balio konturatuko zara.
♉	Taurus: Zure hartu-emon barrixan astiro-astiro juan bihar zara.
♊	Geminis: Lan aldaketiak dirutza haundixa ekarriko dotzu.
♋	Cancer: Dakazunakin konformatuko zara, ez dozu gehixau eukitzeko asmorik, ezta?
♌	Leo: Larriuna bat pasatuko duzu, sol-datia atzeratuko jatzu ta.
♍	Virgo: Espero ez dozun ta gustoko ez dan telefono dei bat edukiko dozu.
♎	Libra: Ez laga trenari faten zure azken trena izango da ta.
♏	Escorpio: Dana ondo prestatuko dozu baiña azken orduan... zure txarrerako izango da.
♐	Sagitaris: Sekula baiño errezau kantsauko zara, medikuari bueltatxo bat egiñ.
♑	Capricornius: Berri barriak jasoko dittuzu espero ez dozun lagun baten bittartez.
♒	Acuarius: Diruakin ez dozuz zure arazuak aurrera etarako.
♓	Piscis: Noiz hartu dozu azkenengo liburua? ordua da! liburutegitik bueltatxo bat egittia be...

Vidal Toyos Jubilaua (62 urte)

- **Zertan diharduzu?** Ezertan bez, jan, edan ta pasiau.
 - **Zer dala ta etorri zinan Elgetara bizitzera?** Elgeta gus-tatzen jatalako ta Txulokuan kriau egon nintzalako. - **Ta zenbat urte dira Elgetan bizi zala?** 36 uste dot.
 - **Zenbat urte andriakin ezkon-duta?** Ikusi giñanetik gaur arte, 39 urte. - **Ta gustora?** Bai, oso.
 - **Barruko erropendako kolo-reik gustokuena?** Azula.
 - **Zenbat urte dakaz zure ko-txiak?** Hamar t'erdi.
 - **Zure bizitzan gogoratzen dozun egun seinalau bat?** Irailaren 30a, nere urtebetetzia.
 - **Udia nun pasatzen dozu?** Abuztua, Caceresen.
 - **Ze egunkari irakurtzen dozu?** El Diario Vasco, gizur asko. - **Ta Goibekokale irakurtzen dozu?** Irakurri ez, nahastu egitten nai-zelako, baiña begiratu beti.
 - **Ze ekartzen do-tzue gogora honek ber-bok:**

Karakola, Euskal Herrixa, Kazarixak. Topatzia bai baiña jateko gustatzen ez jatan ani-malitxua. Peninsula osoko gau-zaik onena. Gustoko dittudan persona batzuk, kazia beti gus-tau izan jata.
 - **Zer aldatuko ziñuke Euskal Herrixan?** Gauza batzuk bai, baiña ez noia politikan sartzera.
 - **Elgetara bizitzera etorri zina-netik zenbat gauza aldatu dira?** Dana, %100a, poligono industrialia, etxiak...
 - **Bizitzan zerk amorratzen zaittu gehixen?** Politikiak.
 - **Uste dozu oiñgo gaztiak sol-daduzkara jua bihar dirala?** Hori bakoitzak ikusi bihar dau.
 - **Zer egiñgo ziñuke Elgetako kutxan dagon diru guztixa zuria balitza?** Jateko ez daken jente askoi lagundu, batez be kanpoko herrixetakuei.



- **Gaztañak ala zure garajeko kara-kolak?** Gaztañak.
 - **Zein uste dozu izan dala Extremadurako uren arrazoia?** Horrek etxiok errekiari onduan egiñ izana.



Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
 Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

ESKOLA TXIKIEN ARAZOARI IRTENBIDEA AURKITZEA DA GURASO ELKARTEAREN HELBURUA

Elgetako Guraso Elkartea 62 familiaz dago osatua. Hauda, Elgetako eskolan dauden ume guztien familiez. Gaur egun eta delegazioko murrizketak direla eta, irakasle kopurua nabarmen jaitxi da, lau irakasle egun osoz eta bi jornada erdian hiru ikasgai ematen.


Mirari Larrañaga da Guraso Elkarteko lehendakari eta Elena Elkoro eskola eta Guraso Elkartearen artean ekonomiako lotura lanak egiten dituen. Guraso Elkar-

tean familia guztiek hartzen dute parte, dena den batzarretara gutxiago joaten omen dira, gainera portzentai haundi baten emakumez osatuta daude batzarrak; honen inguruan Mirarik adierazi zigunez, "oraindik ere hekuntza emakumearen lan bezala kontsideratzen dute askok". Partehartzea boluntarioa da eta kuota bat dute ezarrita urtean zehar egiten dituzte ekintzak antolatzeko.

Guraso Elkartek gero eta zer esan haundiagoa dute kontseilu eskolarretan. "Irakasleen aldetik hau eskatzen da behintzat, hezkuntza kontutan izan ez dela irakasleen kontua soilik, eskola guraso, irakasle eta ikasleez osatua dago" Guraso Elkarteko lehendakariaren esanetan.


Ekintzak

Urtean zehar umeekin egiten dituzte zenbait ekintza, hala nola, ihauteri eta gabonetako jaiak.



"Aurten dugun kezka eskola ingurunea txukuntzea da. eraikuntza haundiegia da eta jolaslekurik ez dugu".

Baina "oso gauza puntualak dira. Gure aldetik irakasleei animatzen diegu gauza gehiago egin ditzaten. Elgetak aberastasun ikaragarria du natura eta bizimodu desberdinak ikusi eta aztertzeke". "Haurrak mendira joan daitezke eguraldi onaz edo baserriak ikustera hango bizimodua ikusiz, edo Angiozarko herrira hurbildu, jendea prest egongo litzateke gauza hauek erakusteko eta umeak oso pozik mundu



"Irakasleak animatu nahi ditugu ekintza gehiago egin daitezen eskolatik kanpora".

OSTATU JANTZERAK

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

TAPEM, S.A.

Trokela eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

berriak deskubritzen". Baina Guraso Elkartek badaki guzti honek esfortzu bat suposatzen duela eta aurtengo egoerak ez duela bidea errazten.

Elena Elkororen ustez, "kontseilu eskolarrean hitzegiten ditugun eta proposatzen ditugun gauzak oso ondo hartzen dituzte irakasleek, eta ahal den guztia egiten saiatzen gara denok".

Eskolako egoera

Aurtengo ardurarik haundiena eskola ingurua da Guraso Elkartearantz, "eskola nabermen haundiagoa da eta ez da tokirik aproposena, ingurua begiratzea baino ez dago, umeek ez dute jolaslekurik. Datorren astean gai honen inguruan hitzegin behar dugu udaltxean eta akordio batera iristea espero dugu denon artean. Dena dela zaila gerta liteke, eraikuntza ez baita osorik delegazioarena, beheko partearen ardura udaltxearena delako eta terrenoen zati bat Iturbe patronatoarena".

Eraikuntza eta inguruaren egoera ez bada ona, irakasle eta ikasleek jasaten dutena ez da hobe. "delegazioak hiruko errege-la aplikatzen du irakasleak kontratatzeke orduan, hauda hainbat



"Irakasle faltak esfortzu haundia eskatzen du antolaketa berri batekin"

ikasle hinbat irakasle". Egoera hau eskola txiki gehienek jasaten dute. Elgetan 4 irakasle daude jornada osoz lan egiten dutenak eta bi daude jornada erdiz hiru ikasgai ematen. Guztira 9 dira mailak. Haur eskolan 3 kurtso daude bi irakaslekin eta gainontzeko 6 kurtsoak binakako taldetan aritzen dira.

Arazo hau ikusita, eskola txikien batzordean sartzea erabaki dute. "Irakasle eta guraso elkartea-

ren lan bateratu aurkeztu nahi dugu eta materia batzutan dauden hutsuneak bilatzeko moduan egongo gara horrela".

Gipuzkoako herri askotan dago arazo berbera, baina Elgeta da eskola txikien artean ikasle gehien dituen. Erudu oso ontzat ikusten dute berriz, Angiozarko eskolaren iharduera eta bertako irakasle Mikoren lana, traba guztiak gainditu asmoz.

"Bederatzi kurtso daude eta irakasle gutxi. Lau irakasle ditugu egun osoz lanean eta bi egun erdiz hiru ikasgai ematen. Arazo hau, eskola txiki guztietan ematen denez, gurasoak eta irakasleak plan bateratu bat aurkeztu nahiko genuke, kolokan dauden ikasgaiak umeengana iritxi daitezzen"



IRAMA

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025

Instalazioak eta mantentze lanak

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

M^A Karmen Lenzeria

Lentzeria eta kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

Loiola irratia gertuagotik ezagutu dugu

1997ko azaroaren 15ean, larunbata, Loiola irratira joan ginen saio bat egitera. Guztia hamar pertsona joan ginen, bederatzi neska eta mutil bat. Kukumiku saioa hamarretan hasi zen eta ordu bete inguru iraun zuen. Eta noski hamarretarako han geunden; entsaio batzuek egin ondoren nahiz eta urdu-ri samar egon, prest geunden aurrera egiteko.

Gure ekintzak honela antolaturik zeuden: lehendabizi agurra abestu genuen, ondoren txiste batzuek kontatu genituen, bakoitzak bi edo hiru, beste batek olerki bat

errezitatu zuen. Pianoan ere aritu ginen, soinu eta panderoa ere jo genituen. Eta horrela ordubete inguru pasatu genuen.

Atzenengo ordulaurdenean asmakisunak kontatu genituen eta edozein lekutatik aukera eduki zuten deitu eta asmatzeko. Dei asko jaso ziren irratian, eta bi sari zeuden. Sari hauek (kontu zaharrak izenburua zuten bi liburuska) Elgetako bi pertsoneri suertatu zitzairen.

Irratitik irten ginenean Loiola inguruan ibili ondoren, Azpeitiko trenen museora urbildu

ginen. Trenak ikusi ondoren txartela hartu eta gero buelta bat eman genuen tranbia berde batean. Baita ere Bilboko metroaren maketa ikusi genuen eta barrura sartu eta barnean zeuden botoi, telefono eta abarrek jolastu ere.

Bazkaltzeko ordua heltzean, Elgetara etortzea erabaki genuen. Bidaian zehar (joan eta etorri) kontu-kontari eta alaitasunez egin genuen.

Kopla batzuen bidez egin genuen agurra eta zuei ere kopla horiek zeintzuk diren esatea pentsatu dugu:

Hementxe gaude guztiok
agurtzeko asmo honez
Euskal Herriko jende guztia
besarkada bero batez.

Agur Euskal Herria
Loiola irratia
eta entzule guztientzako
gure agur beroena.

Hementxe gaude guztiok
agurtzeko asmo honez
Euskal Herriko jende guztia
besarkada bero batez.



Kontakatilu bikainak dira irrati esatari hauek.

5. eta 6. mailako ikasleak

VIV
Janari
denda

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

HAIZEA
TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256


E
HARATEGIA
A
S
T

San Roke 6
Tel: 768168

MIHIARRAINA SALTSA HOLANDARRAREKIN

Sukaldaria: Jose Antonio Oianguren

Patxi Taberna




NOLA PRESTATU:

Ontzi batean mihiarraina olio apur batekin labean sartu. Arraina aguro egiten denez, labea 180°tan ipini eta 5 minuturekin nahikoa izango da.

Saltsa egiteko: arraultza gorringoa ondo irabiatu; honen ostian ura, limoia eta gatza gehitu. Nahasketa hau ondo-ondo irabiatu behar da.

Ondoren, gurina urtu eta egindako saltsa poliki-poliki nahasten joan, sendo-sendo geratu arte. Horrela dagoenean bere puntuan izango da. Azkenik, mihiarrainari saltsa gainetik bota eta jateko prest egongo da.

OSAGAIAK:



GOMENDIOA:

- Ez da komeni arraina larregi egitea sikatu egiten delako.
- Saltsak irakin ez dezan ondo zaindu behar da.
- Ardo txuriarekin nahiz gorriarekin laguntzeko moduko platera da.

F . O . R


Kalitate kontrola

Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38




salbador
19
behea



Kopa bat

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093



Patxi Taberna

PILOTA JOKOAREN HISTORA III: XVIII. MENDETIK GAUR EGUN ARTE

XVIII. mendean aristokraziak galdu egingo du jokorako interesa, "demode". Ohitura finak gailenduko dira. Hala ere, mende honetan, oraindik, trinkete ugari zeuden Frantzian, hutsak ordea jokalariek abandonatu egin baitzituzten.

Garai honetan Frantzia, Italia, eta Ingalaterran pilota jokoaren beherakada oso nabarmena izan bazen ere, Euskal Herrian guztiz kontrakoa gertatuko da.

Pilotari buruzko lehenengo azterna idatzia 1750. urteraino atzeratzen da Oñatiko historian hain zuzen, gutxi gora-behera euskal pilotari buruzko lehen aztarnekin batera.

XVIII. mendearen erdialdetik aurrera jokatzen ziren partidu famatuaren ohiartzunarekin batera zer nolako pilota joko mota jokatzen zen ere heldu da gure egunetaraino, joko zuzenak alegia.

Mende honetan heroiaen mitika pilotaren arloari erantsi zitzaion. Gertaeren ustekabekotasunak, urteroko hiruzpalau partidu



Betidanik ezaguna izan da euskaldunon aposturako afizioa.

entzutetsuenek... interesa areagotzen zuten. Euskal kultura hain sustraituak dauden apostuak egiten zituzten herriek beraien artean. Eskritura bat sinatzera ere iritsi ziren, 30 pesoko kostoarekin, baina isilean milaka peso jokatzen zituzten. Apostuen pizgarria erabatekoa izan zen. Hain izan zen handia apostuek herrien artean sortu zuten lehian neurriak hartu behar izan

zirela.

Pilota Euskal Herrian

Frantsez Iraultzarako guztiz finkaturik egongo da euskal pilota. Pilota joko euskaldunek sortua ez dela nahiko nabaria da. Hala ere, pilota joko generikoaren barruan, euskal pilota euskaldunok sortu eta praktikatutako modalitateen multzoa dela esan daiteke. Pilota betea (trinkoa) erabiliz, larruz estalia, tamaina eta pisu aldakorrekin modalitateen arabera eta, kasu desberdinetan, esku biluzia edo egitura eta aplikapen desberdinetako tresnak erabiliaz, aurrean edo alboetan sareak dituzten eremu zabaletan eta jokalarikopuru aldakorre. Hauek txandaka elkarri botarzen diote pelota, bai zuzenean, eta baita aurretik frontisaren aurka kolparaziz.

raziz.

Modalitate ezberdinetan jokatzen den praktika erdi aroko jatorria duten zenbait jokotan iradokiak Europako zenbait herrialdeetan eta, Frantzian bereziki ezagunak, Euskal Herrian sortu eta bere idiosinkraziaren praktikariei moldatu zitzaion; modalitate bakoitzari

LENIZ

AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETATA ETA FIJAZIO SISTEMAK

Berraendokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203


egokitutako esparruetan, frontoi izenekotan jokatzen da, arauzko pilota baten laguntzaz.

XIX. mendea

XIX. gizaldira arte, beraz, euskal pilota jokoak guztiz erroturik zeuden Euskal Herrian. Kirolaren kontzeptu modernoa garatzeko zegoenean, pilota jokoek euskaldunen bizitzan, aisialdian, zati garrantzitsua betetzen zuen. Hala ere, herritarra izan arren, deigarria da Iraultza Frantsezaren garaira arte ospe handiko pilotarien ausentzia.

Pilota jokoaren euskaldun-terako pauso bat, herriko jendea trinketeetan jokatzen sartzea izan zen, frantziar iraultzaren ondoren, eskuz eta eskularruz jokatzen zuten, baina ez hormaren aurka, pilotalekuan baizik, erdian marra, soka edo sare bat jarritz. Lehen aristokratek eskua eta eskularrua erabiltzetik xarera pasatu ziren.

XIX. mendearan amaieran, zenbait sektorek blekako jokia (gutxi gora-behera gaur egungo pilota) baztertu egingo dute. Egia esan, "blekako jokoaren bazterketa



XVIII. mendean jende xehea trinketeetara joaten hasi zen.

ezer iger daitekeen etorkizunaren aurrean agertuko den jarrera nostalgikoa izango da. Aintzinako jokoak ordezkatu duen tradizioaren galerarekiko beldurra. Norbere kulturaren atal bat, nortasuna, betirako galtzeko mina. Talde kontzientziaren sentimendua pilota lehiaketaren bat zegoen bakoitzean indartzen zen.

Bada Euskal Herrian aintzinako jokoen alde borrokatu zirenen aztarnak. Ustaritz, Sara, Espeleta edo Bidarteko pilotaleku askotan XIX. mende hasieratik Ble jokia debekatzen zuten idatziak maiz agertzen ziren.


Euskal nazionalismoa ere garai honetan sortuko da. Bertako Euskal kulturaren berpizkundea gertatuko da, aurrerapenaren zen-

tzutik at geratzen diren inportazio soziokulturalaren aldean, bertako sustrai etnikoetan oinarrituta.

XX. mendeak aurrera egin duen heinean, euskaldunon entrenigarri nagusia industri gizartean euren lekua hartzen hasiko diren kirol berriekin lehiari arituko da.

XVIII. mendean Frantzia, Italia eta Ingalaterran pilota jokoaren beherakada nabarmena izan bazen ere, Euskal Herrian guztiz kontrakoa gertatuko da.

XX. mendean, pilota, industri gizartean bere lekua hartzen hasiko diren kirol berriekin lehiari arituko da.




URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

GOIMENDI

Ermita: San Migel Monte

Jaia: Maiatzak 8an

Normalean San Migel egunetik hurren gelditzen den zapatu arratsalde eta gauean ospatzen da jaia: Meza elizan, luntxa elizaurrain eta gero iluntze aldera auzotarren (bertan eta kanpoan bizi diren) afaria Kanpazarren.

Nahiz eta azken urteotan galdu xamarra egon, San Iñazio egunak ere indar handia eduki zuen. Jai hau Kanpazarren ospatzen da, eta beste lekuetan bezala muga egiten duten lurretako edo artzai uneetako jaia da (Urbian, Gorbeian,...)

Baserriak eta etxeak:

- Zelaitxueta (Zelaitxo)
- Lasarte
- Zulueta Gainekua (Zulota)
- Zulueta Azpikua (Zulota)
- Pagadigorria (Paiorri) hormak.

- Gongeta, bi bizitza:

- Lazpiur familia (erorita)
- Arbulu familia (hutsik)
- Gontzarri Gainekua
- Gontzarri Azpikua
- Ametz Azpi
- Lope Barri

- Lopealdeoste (Lopaldoste, Lope), bi bizitza:

- Ugarte familia
- Loiti familia
- Altuna (Altune) hutsik

Gontzarri Gainekua

Hauxe dugu Angiozarren altuen dagoen baserria, 555 metro-tara. Altuago dagoen eraikuntza bakarra etxetik gertu dagoen San Migel eliza da. Gontzarri edo Goronsarri dira deitura erabilienak, nahiz eta gaur egun Gontzarri egon finkatuta. Izen honekin eremu zabal bat izendatzen dugu: Gontzarriko pagadia, Gontzarri-azpikua, Gontzarriko erromara, Gontzarri gaina,...

Gontzarri Gainekua etxe hau mendiaren hegoaldera apur bat ezkatutua dago eraikia. Etxeburuko pagadian dago mendi gain hauetan dauden bost eremu megalitikoetariko bat: harrespila edo tumulo bat da, Burdina Aroan gain hauetan bizi zen artzain kulturak eraikita hildakoak ehorzteko. Tumuloek bere barruan trikuarri txiki bat edukitzen dute hildakoa-erentzat lekua eginez eta ekialdera begira beti.

Gaur egungo Gontzarri baserria azken ehun urtetan egin zaizkion aldateken ondorioa da. Oso ondo nabarmentzen da aurrealdean erantsita duen pisua egin aurretik nolakoa izango zen: auzoko beste etxeak bezala bi uretara banatutako teilatua, familia bizitzeko zatia hegoaldera begira eta kortak iparraldera. Barrualdeko banaketa hau, aipatu izan dugu, gure

inguruko eza-gunena dela eta Gontzarrik oraindik hainbat osagarri ondo mantentzen ditu: labasua eta aspaldiko sukaldea etxearen erdialdean oraindik ere ikus daitezkelarik.

Belar-Iturrikastillo familia bizi da Gontzarriin. Belar apellidoa jatorriz Zaldibarkua da, handik ezkondu bait zen Jeronimo Belar Gontzarriara. Belartarrek etxearen jabe 1932an egin ziran, orduan erosi zioten eta Maria Purificación Urquizu andereari. Hilario Belar izan zen eroslea, Ramonen aita.

Etxea zeharo berriztuta dute eta kanpoaldetik benetan itxura apaina du. Etxearen albo batera dagoen aska ere aitzatekoa da, harri bakar batez egin bere forma luzexkak halako erakarpen berezi bat ezartzen dio.

Gontzarrik, hain goian egonda, uraren arazoa beti izan du eta Olaiturritik aspaldidanik ekartzten dute ura, "transbasea" eginez. Gaur egun mutututa egon arren



Gontzarri Gainekua.

benetan harrigarria egiten zitzai-gun mutikotan ur-ola haren hotsa entzutea baso erdian, pla-pla-pla, urak berak zuen indarrarekin jasoz ura etxeako depositoraino.

Mende honen hasieran Bergarako Muinondotik Gontzarriara ezkondu zen Mercedes Olabarriak (aragazkian, ezkerretara jarrita dagoena) horrela erantzun ei zion hain leku urrin eta mendi gainera ezkontzekoa zela eta komentarioak egiten hasi zitzaion lagunari: "Bai, baina holan idetara urrineria joan biharrik eztou eukiko"

Gontzarri azpikua

Gontzarri azpikua orain

dagoen zokotxoan egin baino lehen, mendi gainean, Gontzarri gainekua eta erromarara bitartean dagoen Txabolondo deitzen den lekuan ei zegoen. Hori lekuoi hotza izanik etxea lekuz aldatzea erabaki omen zuten eta joan zen mendean orain dagoen lekura jeitsi aurreko etxea txabola bihurtuz, oraindik ere leku-izenak dioen bezala. Agusti- nek dioenez Angiozarko baserrietan azkenengo eraikitakoa izango litzateke etxe hau Garraztegiarekin batera.

Berez azkenengoetarikoa izan arren beste baserrietako bana- keta berdina egin zen: Sarrerara nagusia ekialdera begira, etxe- ko bizilekua hegoaldera eta korta ipa- rraldera.

Etxeak arku ere badu, bai- na ia ez da nabarmentzen tejoban- k erdi estalita daukalako.

Gallastegi-Sagasta familia bizi da Gontzarri azpikuan. Mende honen hasieran Garmendia familia bizi zen etxe honetan, baina familia hauek Bergarara alde egin zutene- an bizitzera, Zelaitxon bizi ziren Gallastegi-Lamarain familiak hona etortzea erabaki zuten bizitzera 1912an. 1920an erosi zuten etxea. Ordurako seme-alabetatik hiru Zelaitxon jaiok zituzten, ondore- goak jaio zirelarik Gontzarrin. Anai-arreba hauetariko biren seme- ak, lehengusuak beraz, ezagunak ditugu: bata, Jose Antonio Altuna Gallastegi, Arrasateko alkate izan zelako; eta bestea, Victoriano Gallastegi Altube, Bergarako Alka- tea eta Gipuzkoako Juntetan dipu-



Gontzarri Gainekuako familia osoa San Migeletan etxaurrean mende honen hasieran.

tatu delako, azken honek ama ere auzo honetako Zulueta Gainekua baserrikoa zuena.

tan Jose Antonio Altuna bizi da.

Ametz-Azpi

Nahiz eta baserri etxea ez izan Ametz-Azpi ere zerrenda honetan aipatzea erabaki dugu, bata baserri etxe berriena bazen garai batean bestea lehen etxe moderno izan zelako. 1979an jaso zuten Ametz-Azpi Gontzarri azpi- kuaren etxaburuan. Frontoi, pizina, eta abarrekin txalet bat da, eta ez baserria.

Izena gorago duen tonto- rrak Ametzgaina izena duela eta jarri zioten Ametz-Azpi. Etxe hone-

Pagadigorria (Paiorri)

Eskozian balego postaletan agertuko litzateke, baina Goimen- din dagoenez ez du inork ezagu- tzen. Lau hormak ditu zutik garai bateko haunditasunari eutsi nahian. Epeleko bidetik begirata du bistarik ederrena, tontorretik pasokoen zelatan dagoen gaztelua bailitzan. Udazkenean estaltzen duen landareria gorritzean aspaldi- ko lamia eta sorginen bizileku diru- di.

Baina guzti hau etxe bat gainbehera etorrita ikusteak sor- tzen duen zirrara besterik ez da, Paiorri azken hogeit urteetan lau horma besterik ez da eta. 1863an Domingo Elkoro bizi zen bertan. Geroago Lamaraindarrak bizi izan ziren gerra denboran Bergarara joan eta etxea hutsik gelditu zen arte. 1960 inguruan eman zen inmi- grazioaren eraginez etorkinak egon ziren bizitzen hainbat urtetan, harrezkeroz berriz hustu eta gaur- ko egoerara heldu arte.

Paiorrik gauza bat ona daukana ura da. Diotenez Olaitu- rriko ura eta Paiorrikua bat dira.

Pagadigorria abizenak jato- rria etxe honetan du. Eskudoa: En azur, un billeto de oro.



Gontzarri Azpikua, etxaurrea.

Gogoan Daukat

Gogoan daukat oindiok be, hamabi urteko mutikoa nintzala, Eibarren fraillien eskola dotorian ikasten, eta horra nun hasten diran inon diran zubi eta zulorik haundixenak egitten autopistia egiñ bihar zebela ta.

Gure harridura! Menditik kalera bajau eta Eibarren kashero, Elgetan kalekume negargarri bat zana. Ta kasheruoi erdi mariauta halako zubi haundixak egitten zituela ta kotxiak handik goittik behera jausi ezkeru, ta behian batenbat harrapau, zelako aberixia egiñ zeikien pentsauta.

Ta aberixak aberixa, halako obria pagatzeko zenbat bihako ete zan pentsatzia be ez zan bromia. Ta hainbeste diru non jirau? Baiña orduan be derrigor egiñ bihar zan ta egiñ egiñ zān.

Ta zelako bentajia akabau

eta gero! Ene Jesus! Etxetik urten orduko Bilbon, ta zeozer gehixau tardauta Donostian, ederra inbentua ha! Pagau egiñ bihar zan han ibiltzeko, baiña, hala ta be, merezi zeban. Gaiñera pagatzeko hogeta bost urte zian eta hori be ez zan hainbeste denbora.

Handik urte batzutara Caja de Ahorros Probintzialak negozio eskeintzia: autopistian akzinuak era merkian, edozeinek erosteko moduan. Giputx guztixona izan zeikela obrioi ta erosteko, interesak be desentiak ziala ta. Ta gu pozik, guri peajietan kentzen zozkuen dirua, zati bat behintzat, berriro be Gipuzkoara bueltatzen zala ta, ta gaiñera ordurako urte batzuk pasauta ta pagatzen segitzeko denbora gutxiau bihar.


Gero Gallegua hil zan ta bentaja ederra egiñ zozkun danoi. Eta geuk aukeratutakuek Nafarroa-

ra autopistia egiñ bihar zala, eta kontrakuek handik OTANeko tankiak ibiliko ziala ta haserre, azkenian negoziiau, kontsolau danok ta OTANeko tankerik ez baiña bai gure anai Nafarrak duan plaiara. Ta gu pozik, geuk pagatzen segitzeko gutxiau geratzen jakula ta.

Baiña oin Bitorixarako autopistia egiñ bihar ei da ta ez ei dao dirurik. Ta hori pagatzeko, ba, autopistia pagatzen segidu bihar, ez ei daka beste erremedixorik ta. Ta geuk, formalak gazenez, pagatzen segituko dogu. Egixa esanda ez dakitt formalak edo mozoluak ze gazen, baiña nik behintzat ez pagatzeko ez dot ikusten inok ezer egitten dabenik ta pagatzen segituko dogu, hil ordurako espabillatzen hasiko ete gazen esperantzan.

Jabier Aranzeta

"Egixa esanda ez dakitt formalak edo mozoluak ze gazen, baiña nik behintzat ez pagatzeko ez dot ikusten inok ezer egitten dabenik ta pagatzen segituko dogu, hil ordurako espabillatzen hasiko ete gazen esperantzan".




M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67



Jesús Marí Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719
**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

**Iragarri
zaitez.**
Tel:78.90.85
Faxa: 789043

**BILTEGI
DENDA**
Zugandik
gertu behar
dugun beste
Salbador 24 Tel: 768206



ANA LIBURUDENDA
Zatoz beste
dimentsio batetara!
Tel:768078



Argazkia: Antonio Iturrigaztelu

Gerra aurreko eskolako erretratua

Izenburuak dioen modura honek erretratuonek gutxienez hirurogei bat urte dituela esan daiteke. Bertan ageri direnen orduko edadea zortzitik hamarrera bitartekoa da. Ordutik oilarrak askotan kantatu du eta mutikote hauen orduko itxurak eta gaurkoen arteko aldea horren zeinale dira. Ez da erraza izan izenak musuekin identifikatzea nahiz eta argazkian ageri direnetako batzuekin harremanetan jarri garen. Lortu ahal izan ditugunak honoakoak dira:

Ezkerretik eskubitara lehenengo ilaran: Jesus Irazabal, Gregorio Zabala, Jose Antonio Gorrotxategi, Felix Irazabal, Andres Askasibar eta Angel Zaldibar.

Bigarren ilaran: Felix Bergaretxe, Jose Mari Telleria, Sabin Gallastegi, Jose Mari Gorrotxategi eta Felipe Maiztegi.

Hirugarren ilaran: Iñaxio Mendikute, Daniel Arantzeta, Felix Loidi, Iñaxio Bergaretxe, Felix Garcia (maixua), Juan Mari Larrea, Jose Irazabal eta Luis Mari Irazabal

Goian daudenen izen-abizenak: Iñaxio Balda, Jose Luis Gallastegi, Pedro Arantzeta, ezezaguna, Juanito Untzetabarrenetxea, Ramon Zabala, Iñaxio Ormaetxea, Lorentzo Askasibar, Jose Marto, Dionisio Lamarain, Antonio Iturrigaztelu eta Jose Mari Arantzabal.

* *Goibekokalen* zuen erretratuen zain gaude. Ziur atal honetarako moduko erretraturen bat duzuela etxeko txokoren batean. Ez izan dudarik, bidali *Goibekokalera* eta argitaratu ostean bueltatuko dizugu argazkia.

Ibargarai, 11-13
BERGARA
Tel - Faxes: 767058



MODELO BERRIAK

Kalitate hobea preziorik onenean!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Goibekokale aldizkariko
loteria salgai

21.528 zenbakia

Taberna eta
dendetan daukazu.
Ez galdu aukera.

